

URB-50/2018.- HAPO-REN ALDAKETA ZEHATZA, IBARZAHARRA 01 INDUSTRIALDEARI DAGOKIONEAN (AI_IB_RM01). PROPOSAMENA IZAPIDERAKO ONESTEA ETA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA ONARTZEA.

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita biau egindako bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

LEHENENGOA.- Izapiderako onartzea Valle de Trápaga-Trapagarango HAPOan, IBARZAHARRA 01_AI_IB_RM01 industrialdean, aldaketa zehatz bat egiteko proposamena.

BIGARRENA.- Valle de Trápaga-Trapagarango HAPOan, IBARZAHARRA 01_AI_IB_RM01 industrialdean, aldaketa zehatz bat egiteko herritarrek parte hartzeko programa onartzea. Aipatu programa 2017ko abenduan aurkeztutako agirian islaturiko fase eta mekanismoz osatua dago, eta erabaki honen aurretiko txostenetan aurreikusten diren zuzenketa eta parte hartzeko tresna gehigarriak ditu.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau udaletxeko iragarki oholean, udal webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea jendeari ezagutzera emateko.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2018ko otsailaren 27an.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra